



Egiaztatu
eta informatu

Lagundu
dohaintza
egokiak
egiten

Ekimen humanitarioak bideratzeko jarraibideak

Erakunde eta elkarteentzako gakoak

- **Ez erreazionatu neurriz kanpo** komunikabideetako albisteen aurrean.
 - Lortu krisialdiari buruzko **informazioa zuzeneko** ezagutza duten entitateekin, eta egiaztatu zenbait iturri laguntza-dei bat sustatu aurretik: OCHA, ECHO, Nazio Batuen agentziak edota nazioarteko eta tokiko elkarteak.
 - **Sentsibilizatu** krisialdiaren inguruan webgunean eta sare sozialetan zabal ditzakezun komunikatu, kanpaina edo elkarrizketen bitartez.
 - **Ezagutarazi** zer entitatek diharduten krisialdi bakoitzean.
 - Eman krisialdiari buruzko **informazioa** hasierako unera mugatu gabe: lehen astean, hilabetera, hiru hilabetera, urtera...
 - Zure entitateak kudeatutakoaren **kontu eman**.
-
- **Ez sustatu** erabilitako arroparen, mota orotako sendagaien edota erreskateko, medikuntzako edo osasun-arloko pertsonalaren **neurri gabeko bidalketa**.
 - **Lagundu** dohaintzak agintariek eta laguntza humanitarioko erakundeek zehaztutako premiak eta irizpideak kontuan hartuta egiten.
 - **Sustatu** interesa duten beste agente batzuekiko **koordinazioa**, osagarritasunak bilatzeko.